

Modèle CCYC : ©DNE

Nom de famille (naissance) :

(Suivi s'il y a lieu, du nom d'usage)

Prénom(s) :

N° candidat : N° d'inscription :

(Les numéros figurent sur la convocation.)

Né(e) le :

 Liberté • Égalité • Fraternité
RÉPUBLIQUE FRANÇAISE

1.1

Évaluation

CLASSE : Première

VOIE : ☐ Générale ☐ Technologique ☒ Toutes voies (LV)

ENSEIGNEMENT : Basque

DURÉE DE L'ÉPREUVE : 1h30

Niveaux visés (LV) : LVA **B1-B2** LVB **A2-B1**

Axes de programme : **Axe 2 « Espace privé et espace public »**

CALCULATRICE AUTORISÉE : ☐ Oui ☒ Non

DICTIONNAIRE AUTORISÉ : ☐ Oui ☒ Non

☐ Ce sujet contient des parties à rendre par le candidat avec sa copie. De ce fait, il ne peut être dupliqué et doit être imprimé pour chaque candidat afin d'assurer ensuite sa bonne numérisation.

☐ Ce sujet intègre des éléments en couleur. S'il est choisi par l'équipe pédagogique, il est nécessaire que chaque élève dispose d'une impression en couleur.

☐ Ce sujet contient des pièces jointes de type audio ou vidéo qu'il faudra télécharger et jouer le jour de l'épreuve.

Nombre total de pages : 4

Baccalauréat général et technologique

Basque

Classe de première

Compréhension de l'écrit et expression écrite (3^e trimestre)

Niveau visé LVB : A2-B1	Durée de l'épreuve 1 h 30	Barème 20 points CE : 10 points EE : 10 points
--	--	---

L'ensemble du sujet porte sur l'axe 2 du programme « Espace privé et espace public ».

Il s'organise en deux parties :

1- Compréhension de l'écrit

2- Expression écrite

1-Compréhension de l'écrit (10 points)

Titre du document : Nork egingo ditu etxeko lanak ?

Ondoko galderei euskaraz erantzun.

a-Zein da arazoa hastapenetik ?

b-Nola ulertzen duzu « *Neskek etxeko lanen ardura hori utzi egin dute, zorionez. Neskek utzi egin dute eta mutilek ez dute hartu* » zatia ?

c-Nork garbitzen ditu komunak gehienez ? Zer ulertarazten digu hori aipatzen duenean ?

Nork egingo ditu etxeko lanak ?

Bada galdera bat hain oinarritzkoa eta arrunta izanagatik, munduko ideologia jaso guztiak gaitzen dituen, eta da : nork egingo ditu etxeko lanak ? Edo asko zabaltzen ari den pankarta batek dioen moduan "*Denok eman behar dugu zerbait etxeko andreek dena eman ez dezaten*". Ez dut nik anaiarik izan, baina inguruan ditudan arrebeek diote gauzak hainbeste aldatu diren honetan, gauzak ez direla asko aldatu. Aitak, anaiak, koinatuak..., etxeko gizonak ez ikusiarena egiten¹ dietela etxeko lanei. Arraska den putzu sakon eta ilun horrek izutzen omen ditu batez ere.

Ez dut nik anaiarik izan, baina izan dut aita eta izan naiz alaba. Badakit orain alaba gazte askok ere baliatzen duela etxeko rol-banaketa beraren alde. Alegia, alaba askok ere umetzen duela bere burua amarenean etxeko lanen ardurarik ez hartzeko. Eta tuntun-plantan amari utzi

dena egiten. Eta amak ere umetzen dituela seme-alabak, eta ez-ohartu plantan, eta bakeagatik, ezer ez egiten utzi.

Alabak eta semeak, hala ere, berdintasunetik gertuago hezten dira orain. Gero eta berdinago, baina azpitik jota. Neskek etxeko lanen ardura hori utzi egin dute, zorionez. Neskek utzi egin dute eta mutilek ez dute hartu.

Ez naiz ni ere miss espartzu² izendatzeko modukoa izan. Baina esango nuke, oro har, amarenetik ateratzean eta adin batetik aurrera, etxeko lanak egiteko mugitze hori neska gazteen artean ia arau bihurtzen dela, eta mutil gazteen artean ia salbuespen. Eta ez da, noski, kontu genetikoa, mendeetako entrenamendua baizik.

Gizarteratzean ikusten da hori ondo: ikasle-pisuetan edo lokaletan, gaztetxeetan esaterako. Gaztetxea den moduko jendarte berdinzale batek funtzionatzen duen jakiteko, begiratu ea komunak garbi dauden. Eta ondoren begiratu nork garbitzen dituen. Ze arraska³ gizonentzat beldurgarria baldin bada, komuna jada, komuna kokodrilo-zuloa da. Hori ez da sekula euren jurisprudentziakoa izango, garbitzeko esan nahi da.

Zer esango duzu ? Gizonek soziedadeak asmatu zituzten kozinatu eta jan ondoren fregatu beharrik ez izateko. Elkarte gastronomikoak emakumeek asmatu izan balituzte, seguru asko fregatu egingo zen bertan.

Baina ez gara lehengo andre-gizonak; horrexegatik, juxtu, etxeko lanen kontuak txikizioak⁴ eragiten ditu orain. Orotariko bikoteak hausten ditu, elkarbizitzak hondatzen ditu eta familiak haserrarazten. Eta onartzen duzunean ez duzula etxeko lan hori hartzen, ez duzula hartuko eta, zer arraiol, ez duzula hartu nahi ere, orduan sortzen da lurrikara sortzen duen beste galdera hori: norbait hartu nork bere etxeko lanak egiteko, bai ala ez ? Ze baiezkoa oso erabaki zilegia⁵ izanik, garbiketa oso lan duina, norbait hartze hori planteatzea, astindu bat da zure bizitzan, klase-kontzientzian. Astindu bat da zure emakume ikasian edo zure gizon ezkertiarrean. Eta gainera, lurrikara horrek errepika txikiak dakartza gero : “norbait hartu” esatean nor ikusten dugun. Eta nor hori nola, eta nor horrek zenbat. Eta, noski, errepika txiki horiek gero lurrikara handiago baten atari izan daitezke; alegia, ikustea nola amak familiagatik- edo debalde egiten zuen hura, beste norbaitek derrigorragatik⁶ ia debalde⁷ egiten dizun.

ez ikusiarena egiten¹ : alegia ez ikusi (faire semblant de ne pas voir)

miss espartzu² : miss lavette, fée du logis

ze arraska³ : le racloir

txikizioak⁴ : trikimailuak (des tracas)

zilegia⁵ : bidezkoa (légitime)

derrigorragatik⁶ : beharagatik

debalde⁷ : urririk, doainik

Maialen Lujanbio. Faktoria, Euskadi Irratia. 2016/06/01.

2-Expression écrite (10 points)

Ondoko bi gaietarik **bat** garatuko duzu euskaraz, 12 bat lerrotan.

Sujet A

Maialen Lujanbiok, etxeko lanen egiteko norbaiten hartzea aterabide bat bezala aurre-ikusten du bukaeran. Zer diozu ? Zuretzat aukera bat izan daiteke kanpoko norbaiti etxea garbiaraztea edo ezinezkoa da ?

Sujet B

Uste duzu gaztetxeetan ere gizartea isladatzen dela eta lanak partekatzeko eta egiteko mementoan ohiko eskema aurkitzen dugula ? Zure erantzuna gara ezazu.